



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2019ko URRIAREN 29an EGINDAKO OHIKO  
BILKURAREN AKTA**

2019ko urriaren 29an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

ZINEGOTZIAK :  
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga  
Unai Sorarrain Urruzola  
Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Concepcion Soria Legua  
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen du: Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**  
✓ 2019ko irailaren 24ean egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Oilategitik Kultur Elkarteak eginiko 2019 urteari dagokion diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 5. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko proposamena aztertu, hala bada.**
- 6. Goiener, Scoop eta Naturcoop. Energia kooperatibaren kide egiteko proposamena aztertu, hala bada.**
- 7. M.A.U. andrearen diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **LEHEN PUNTUA**

#### **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- ❖ 2019ko irailaren 24ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 140/2019tik 143/2019ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

DESMA ESTUDIOS AMBIENTALES	18.150,00
AITOR MONTES ARRONDO	6.289,38
SANTIAGO PAGOLA	10.600,00
QUISER	870,37
TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA	181,50
IRAGARRI	188,76
IZENPE	56,76
AISLAMIENTO LIZARTZA	4.339,06
RENTOKIL	340,01
AIEKA SONORIZAZIOAK	968,00
EZ DA ENTZUTEN	1.452,00
TRANSPORTES A.ROTETA	895,40
OSCAR GALINDO	363,00
HARGOI	1.035,76
EUSKALTEL	116,35
CORREOS	3,21
EDURNE BENGEOA	188,66
IBERDROLA	31,70
BEELAKO	78,65



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

DONOSTI INGENIERIA Y PROYECTOS	302,50
RYDE OBRAS Y SERVICIOS	945,31
GARAJE JOKIN ALDANONDO	320,00
ERKIZIA AROZTEGIA	9.623,59
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	50,00
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	910,00
HAGINPE	2.261,18
ASTONDOA PIROTEKNIA	59,01
URBIETA TRANSPORTES	163,35
CORE SOLUTIONS	3.267,00
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA	2.000,00
NATURTZAINDIA ELKARTEA	13.000,00

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **79.050,51** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **OILATEGITIK KULTUR ELKARTEAK EGINIKO 2019 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Oilategitik Kultur Elkarteak eginiko eskaeran dioena, hau da, Oilategitik 19. Alean fakturak ordaindu eta euren jarduerarekin jarraitu ahal izateko Alkizako Udalari 2.803,05 eurotako diru-laguntza eskatzen die.

Kontutan izanik aurtengo kasua ez ohikoa dela, Gipuzkoako Foru Aldundiak, komunikabideak diruz laguntzeko sistema aldatu duenez, 2019. Urtean udalaren bidez egingo delako.

Ikusirik, Oilategitik Kultur Elkarteak eskatzen duten diru-laguntzaren fakturen frogagiriak aurkeztu dituztela.

Gaia azterturik, Jose M<sup>a</sup> Aranzabe zinegotziaren abstentzioarekin, Udalbatzak gehiengoaz, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oilategitik Kultur Elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, Alkizako Udalak 2.803,05 eurotako diru-laguntza ematea onesten du.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: 2.803,05 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Oilategitik Kultur Elkarteari jakitera ematea, ordainketa bi zatitan egingo dela:

- Diru-laguntzaren onespenerekin % 53,51
- Urtearen amaieran % 46,49

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oilategitik Kultur Elkarteari ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

## **UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAN (UEMA) SARTZEKO PROPOSAMENA AZTERTU, HALA BADA**

Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### **ERABAKITZEN DU:**

**LEHENENGOA:** Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 47. artikulua ezartzen duen Udalkideen Gehiengo absolutuen aldeko botoekin Alkizako Udalerria «Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean» (UEMA) bazkide gisa sartzeko proposamena onartu; eta ondorioz, Mankomunitatearen Batzarrari sarrera eskatu.

**BIGARRENGOA:** Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) eraginean jarraitzen duten estatutuak onartzea, 2008ko urtarrilaren 11ko dataz *Bizkaiko Aldizkari Ofizialeak* argitara zirenak.

**HIRUGARRENGOA:** Legedi honetarako honako Zinegotziak izendatu sarrera eskatu den erakundearen aurrean ordezkari, eskubide eta egin behar denekin:

-Lehen ordezkaria: Inaki Irazabalbeitia Fernandez (Alkizako Abertzale Ezkertiarrak).

-Lehen ordezkariaren ordezkoa: Gillermo Otegi Zubillaga (Alkizako Abertzale Ezkertiarrak).

**LAUGARRENGOA:** Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. eta 70.2 artikuluetan xedatutakoa betez espedientea jendaurrean jarriko da, erabaki honen berri emanez iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta, hilabeteko epean, interesatuek espedientea aztertu, eta iruditzen zaizkien erabakiaren aurkako alegazioak, idatziz aurkeztu ahal izateko.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**BOSTGARRENGOA:** Aurreko atalean esaten den jendaurreko tramite honetan alegaziorik ez bada aurkezten, erabaki hau, besterik gabe, behin betiko erabakitzat joko da eragin denetarako.

**SEIGARREN PUNTUA**  
**GOIENER, SCOOP. ETA NATURCOOP. ENERGIA KOOPERATIBAREN KIDE EGITEKO PROPOSAMENA AZTERTU, HALA BADA**

Alkizako udalak kezka handia du aldaketa klimatikoa dela eta. Udalak uste du aldaketa klimatikoaren kontrako borroka maila askotakoa dela eta ez dela soil-soilik maila goragoko erakundeen zeregina. Udalek ere lan handia egin dezakete beren eskumen-esparrutik abiatuta.

Udal honek 2019-2023 legealdirako dituen helburuen artean dago Alkizak sortzen duen aztarna ekologikoa murriztea. Bi alor nagusi landu nahi dira, energia-sorkuntza eta herritarren higikortasuna.

Energia-sorkuntzak iturri berriztagarrietara jo behar du trantsizio energetikoa bideratzeko. Alkizan badira aukerak energia berriztagarriak garatzeko, hidroelektrikoa, eguzkiarena eta haizearena bereziki. Udalak helburua jarri dio bere buruari energia berriztagarrien sortzaile izatea, besteak beste, udalaren energia beharrak asetzeko. Horrek Alkizaren aztarna ekologikoa gutxitzen languntzeaz gain, eragin ekonomiko positiboa izango du udalaren aurrekontuetan ez baitio hirugarrenei energiarik erosi beharko.

Bestetik, Goiener kooperatibaren 2. Artikuluak zehazten du bere helburua "*Hau da kooperatibaren xedea: ziurtagiri berdedun energia merkaturatzea argindar tarifaren bidez*".

Eraberean, Nafarkoop Energia kooperatibaren 2. Artikuluak erakunde horren xedea zehazten du: "*Constituye el objeto de la sociedad la promoción, viabilización gestión de unidades de producción de energía de cualquier clase, procedente de fuentes de energías renovables, para su comercialización y consumo por las personas socias.*"

Kontsideraturik Goienerren eta nafarkoopen helburuak bat datozela udal honek dituen asmoekin eta asmo horiek betetzeko erakunde horiek bidailagun egokiak izan daitezkeela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DUTE**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

LEHENGOA.- Goiener S. Coop. Kooperatibaren bazkide egitea, estatutuak onarturik, eta 100,00 eurotako bazkidetza-ekarpena egitea.

BIGARRENA.- Nafarkoop S.Coop. kooperatibaren bazkide egitea, estatutuak onarturik, eta 100,00 eurotako bazkidetza-ekarpena egitea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **M.A.U. ANDREAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik M.A.U. andreak eginiko eskaera, non Tolosako Aitzol Euskaltegian 2019/2020 ikasturtean, euskarako ikastaro bat egin behar duela, B1. Euskara eskakizuna ateratzeko. Ikastaroaren kostua 281,29, eurotako izanik, aipaturiko ikastaroa egiteko Alkizako Udalarari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Ikusirik Alkizako Udalak herritarren euskaratze prozesua bultzatu nahi duela.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

#### **ERABAKITZEN DUTE**

LEHENA.- M.A.U. andreak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko, hau da, Tolosako Aitzol Euskaltegian egin behar duen euskara ikastarorako 281,29 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA.- M.A.U. andreari jakinaraztea, diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo dela:

- 1. Ordainketa: Matrikularen % 50-a, matrikula eta ordainagiria Udaletxe honetan aurkezten dutenean.
- 2. Ordainketa: Ikastaroa amaitzean, gelditzen den % 50-a, Udaletxe honetan asistentzi ziurtagiria aurkezten duenean. Ordainketa hau burutzeko gutxieneko asistentzia % 85a izan beharko da.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri M.A.U. andreari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **8.1. ALKIZAKO UDALA ETA GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAREN ARTEKO LANKIDETZA**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## HITZARMENAREN ONESPENA, ALKIZAKO UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO

Ikusirik Gipuzkoako garraioaren lurralde agintaritzak eginiko eskaera, non Udal erroldaren datuak egiaztatzeke lankidetzaz hitzarmenaren zirraborra igorri dute, Alkizako Udalak bere onespena emateko. Agintaritzak MUGI sistema kudeatzen du, MUGI/Lurraldebus txartela bateratze tarifarioaren ardatza delarik. Erabiltzaileek txartela hauek eskuratu ahal izateko zenbait kasuetan derrigorrezkoa da Gipuzkoan erroldatuta egotea, horretarako dagokion errolda ziurtagiria eskatzen dutelarik. Beraz, egin nahi dena da hitzarmen honekin, Alkizako herritarren eskaerak egiaztatzea, udal erroldaren bidez, honek errolda ziurtagiria eskatzea ordezkaturiko duelarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udala eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoaren artean, udal erroldaren datuak egiaztatzeke lankidetzaz hitzarmenaren onespena.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmentzea, hitzarmen hau sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoari ematea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

### IDAZKARIAK